



UDAL BATZORDEEN BERRI

| LAN-TALDEA | AZTERGAIAK | GARATUTAKOA | HURRENGORAKO |
|---|--|---|--|
| Ekimen sozio-kulturalak (2017/07/14) Hurrengo saioa: 2017/9/01 | Erretaularen eraberritzeko finantziazio bideak | Parrokia batzordearekin batera, Itsasoarrei dohaintza aukera eskaintzeko gutuna banatzeko prestatuko da komunikazio taldean. | - Prentsaurrekoa ostiralean, hilak 21, egingo da, goizeko 11:00n, Equipo 7 enpresarekin batera. - Erretaularen balioari zabalkundea emateko ekimenak landu. |
| | Udalekuen 4. astea | Zerki enpresa kirol begiraleekin Xabi arduratuko da egitaraua zehazteaz. | - Udalekuetako balorazioa aztertu |
| | Ariketa fisikorako eskaintza zehazteko inkesta | Udalak ikasturtean zehar herritarren beharrei edo nahiei egokitutako kirol eskaintzen proposamena egitea inkesta baten bidez. | - Irailean banatuko da - Hileko igande jakin batean mendi irteerak antolatuko dira eta egutegia aurreikusiko da. |
| | Udazkeneko ekimenen aurreikuspena | <ul style="list-style-type: none">- Kizkitzako eguna- Herri batzarra- Tailerrak- Auzolana eta gaztaina jana- Hitzaldiak- Azoka ???- Turismo eskaintza- Gabonetako ekintzak | - Aurreikuspena osatutakoan Goierri telebistakoei eta gainerako komunikabideei jakinarazi. |



| LAN-TALDEA | AZTERGAIAK | GARATUTAKOA | HURRENGORAKO |
|---|---|--|---|
| Azpiegitura eta ingurumena (2017/07/15) Hurrengo saioa: 2017/09/02 | Alegiatik Ormaiztegirako pasoa oinezkoentzat /txirrindularientzat | Uztailaren 14an Diputazioko errepideen zuzendaria den Mikel Uribetxeberriarekin izandako bileraren berri eman da. Alegiatik Ormaiztegirako oinezkoentzat zein txirrindularientzat paso segurua zein izan daitekeen aztertzen aritu ziren (bidegorria Agerreberriko bidegurutzeraino luzatzea, Alegiako etxe grisen ondoko espaloari segida ematea, Alegiatik errotondara bitartean errepidean gurutzatzeko gun bat seinalatzea, etab). | Diputazioa proposamen bat egitekotan geratu da (Gabiriako alkateari bidaliko dio). Diputazioak egindako proposamena herrian aztertu. |
| | Internet konexioa herrian (Talaia) | Talaia enpresa zuntz optikoa antena bidez Udaletxera eta herri osora ekartzeko aukera aztertzen ari dira eta bilera bat egin nahi dute. | Komunikazio taldean aztertu. |
| | Bideak konpontzeko dirulaguntzak | Ariolarako eta Eztalagoitiko bideak berritzeko edo konpontzeko diru-laguntza iritsi da (29.000€). Aurrekontuak aztertu ditugu eta Gaiñera enpresak egingo du Ariolako. Eskoilera egiteko aurrekontu bat bakarra jaso dugu. | Ariolako bidea konpontzen hasteko Gaiñera enpresarekin data adostu. Eskoilera egiteko bigarren aurrekontua jasotzen denean, erabaki. |
| | REDESArekin hitzarmena | Aurten REDESArekin egitear dagoen hitzarmena 9.000€koa izango dela adostuta dago. Diru hori non eta zertan gastatuko den justifikatu beharra dagoenez, Alegiako haur parkea eta ingurua itxuratzeko ditugun aurrekontuak aurkeztuko dira eta memoria egingo da. | Justifikazioa prestatu. Aurrekontuak aurkeztu. Alegiako bizilagunei behin behineko proiektua aurkeztu eta landu. |



| LAN-TALDEA | AZTERGAIAK | GARATUTAKOA | HURRENGORAKO |
|--|--|--|---|
| Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/ 07/18) Hurrengo saioa: 2017/09/05 | Internet konexioa herrian (Talaia Telecom SL) | Raul Lacalle (gerentea) eta Imanol Arsuaga (komertziala) bertaratu dira. Internet operadore batek ematen duen kobertura eskaintzen dute eta duten operadorearen sarea wifi bidez iritsiko litzateke, Goiekitik Usurbeko antenara, handik Aizelekura eta bertatik Itsasora. Konektibitatea faseka egitea planteatzen dute. Irailean Itsasoko maparen azterketa bat egingo lukete eta honekin, aurrekontu bat prestatuko dute. | - Ezkio eta Gabiriako alkateekin egon (azpiegitura konpartitua planteatzeko). - Talaia enpresaren proposamena aztertu. - Herritarrei informazioa noiz helarazi aztertu. |
| | Erretaularen eraberritzeko finantziario bideak | Parrokia batzordearekin batera, Itsasoarrei dohaintza aukera eskaintzeko gutuna banatzeko prestatu da. | - Prentsaurrekoa ostiralean, hilak 21, egingo da, goizeko 11:00n, Equipo 7 enpresarekin batera. - Erretaularen balioari zabalkundea emateko ekimenak landu. |
| | Udalekuen balorazioa (inkesta) | - Udalekuetan parte hartu duten haurren familiei inkesta bat prestatu zaie. Formularioa datorren ostiralean whatsapp-ez bidaliko zaie. | - Inkestetako emaitzak aztertu. - Ekintza osoaren balorazioa egin (begirale, familia, enpresa, garraioa, kostua,...) |
| | Web orria | - Egitura osoa eginda dago, edukiz betetzen hasi gara. | - Udal Batzordean web orrian sartu nahi diren edukiak aztertu eta osatzen joan. - Web orria ikusgai noiz jarri daitekeen erabaki. |